

BALOREZKO PROPOSAMENA

Denok dakigu pandemia honetan txirrindularitza praktikatzen hasi diren jendearen kopurua asko handitu dela eta afizio handia sortu dela. Honekin batera, istripu kopurua erruz da. Gizarteko arazo hau identifikatuta, gure produktua hobetu eta diseinu segurua sortu dugu. Gure asmakizuna, buru osoa estaltzen duen airbag-a da eta honek, istripua dagoenean, gorputza babestea nahi ditugu, bizkar hezurra babesteko eta etorkizuneko osasun arazoak sahiesteko.

Erabilera oso erraza izango luke; lepoko baten diseinuarekin eta barruan duen aire biltegiarekin. Lepokoak barnean duen mekanismoa airearen laguntzaz puztu egingo da eta gure garezurraren inguruan airbag bat sortuko du, burua lurrarekin topo egitea sahiestuko duena.

Oso erraz jartzen da lepoko formarengatik eta oso eroso ere bada, ez betiko kasko handi eta gogaikarriak bezala, modelo berri hau ia nabarmendu ere ez da egiten. Lehen aipatu bezalaxe, lepoko edo bufanda baten itxura izango luke, beraz estetika aldetik diskretua dela esan genezake. Materialei begiratuz gero, telaz estalia egongo litzateke eta emergentzia kasuetan besterik ez litzateke puztuko, hau da txirrindularia erotzean. Istripu bat izatean airbag-ak segundu-ehunena baino ez du tardatuko ateratzen, horrela buru osoa estaliz txano bat izango balitz bezala, buruko kolpe posibleak sahiestuz eta kirolariaren arnas-bideak libre utziz.



Gure proiektuaren funtzionamendua ez da oso konplexua, lepoaren aurre eta atzekaldean txirrindulariaren mugimenduak, azelerazioa eta norabidea neurtzen dituzten sensore batzuk egongo lirateke. Bestalde, arbaig-a tolestuta eta gas bonbona txiki bat ere egongo lirateke eta sensoreek istripu bat hautematean, airbag-a ziztu bizian puztuko litzateke airez.

Hau gutxi balitz, kasko honek talkaren energia kasko tradizionalak baino askoz hobe xurgatuko du kotxeko istripu bat dagoenean bertako airbag-ak egiten duen bezalaxe.

Are gehiago, gure produktua berrerabiligarria da. Airbag-a husteko zulo txiki bat du eta ondoren hau tolestu eta telazko estalduran berriro ere satu beharko genuke beste bidaia bat egin ahal izateko. Honez gain, hainbat tamainutakoak salduko genituzke bakoitzaren lepo eta burura egokitu dadien.

Pandemia honetan, txirrindularitza praktikatzen duten pertsonen kopurua handitu egin da eta honekin batera, segurtasun neurriak hobetzeko nahia. Denok dakigu bizikleta istripu baten ondorioak oso txarrak izan daitezkeela. Zoritxar hauek sahiesteko izango litzateke gure produktua.

